

txintxarri



Aste osoa larunbataren zain

Beste urte batez kultur etxea bete du Jalguneren jaialdiak / 8-9

TXINTXARRI

Euskaraldiak utzitakoa

Ekimena bukatu arren, sortutako dinamikei eusteko deia egin dute antolatzaileek / 3

San Tomas azokan konpainia onean ongi pasatzeko prest, txistorra, talo eta sagardo artean / 4


Saskibaloiko kadete mutilen selekzioen topaketak egin dituzte kiroldegian, Ostadarren eskutik / 10

Gabon hauetan oparitu

%30 DESKONTUA

eguzkitako
betaurrekoetan

Gure betaurreko guztiak
bilduma berrietakoak dira



Kontsultatu jitzazu zure optikan kanpainaren ezaugarriak.
Ezingo da beste eskaintza batzuetan erabili.

R.P.S. 175/15 I.L.G.

Kale Nagusia, 15
Tel.: 943 37 74 55
LASARTE-ORIA

MULTIOPTICAS
lehenaz zerbitzu optikoetan

www.multioplicasgipuzkoa.com





Jokin Guridi, Ttakuneko kudeatzailea, elkarteko langile eta zuzendaritzako kideekin. TXINTXARRI

Galdera eta erreguetan katramilatu da batzarra

Ohiko udalbatzarrean gai zerrenda eztabaidarik gabe onartu dute. Galdera eta erreguen unean piztu dira tirabirak, oposizioak galdera ugari egin baitzizkio alkateari. Ttakun Kultur Elkarteak TXINTXARRI-ko banatzaileek sufrutako erasoak salatu ditu

Adrian Garcia

Astearteko ohiko biltzarra azkar batean amaituko zela zirudien, gai zerrendako bost puntuak eztabaidarik gabe onartu baitzituzten, aho batez. Uztaileko batzarraren aktaren onarpena; euskararen erabilera normalizatzeko plan estrategikoa; alkatea ahalduntzea Ola kaleko obra eta jabetza horizontaleko eskriturak sinatzeko; eta udalaren araudiaren 40.2 artikulua aldatzea. Horiek minutu gutxitan adostu dituzte. EH Bilduk, EAJk eta ADLOPek presaz sartutako mozioak ere aurrera egin du, PSE-EEren abstentzioarekin; udaleko langile publikoen hitzarmeneko artikulua bat moldatu dute, senide gaixoak edo haurrak zaintzeko eszedentziak erraztu ahal izateko.

Edonola ere, azkenean batzarra luzatu egin da, erreguen eta galderen txanda aprobetxatu baitute oposizioko zinegotziek udal gobernuari kontuak eskatzeko. EAJko Jon

Antxordokik ikastetxeak berritzeko diru laguntzen auzia ekarri du gogora. "Ez da ziurra Eusko Jaurlaritzak aurrekontuak izango dituen hurrengo urtean, eta aurten galdutako diru laguntza ezingo da jaso". Kontrakoa uste du, ordea, Jesus Zaballos alkateak. "Uko egin zitzaion diru laguntza horri, udaleko aurrekontuetan ez zelako aurreikusi obra. Hurrengo urtean egingo da, nahiz eta Eusko Jaurlaritzako aurrekontuak luzatu".

Arkaitz Naya ADLOPeko bozeramaileak lokalak uzteko arauaren inguruan galdetu dio alkateari, noizko egingo ote den galdetzeko. "Lege prozedura aldatu denez, prozesu parte hartzaile bat egin behar da, kontutan hartuta batzordeak onartu zuen araua", erantzun dio Zaballosek.

Pablo Barrio EH Bilduko ordezkariak Gizarte Zerbitzuei buruzko zalantzak plazaratu ditu. Bajan dauden langileen

ordezkapenak ez direla egin salatu du, baina Lourdes Acevedo Gizarte Zerbitzuetako zinegotziak gezurtatu egin du. Bestalde, Leire Elizegi EH Bilduko bozeramaileak Euskaraldia ekarri du gogora, parte hartu duten erakunde, elkarte eta norbanakoak zoriontzeko. Horrez gain, udalari eskatu dio herrigintza eta euskalgintza babesteko, eta herriko elkarteekin elkarlana sustatzeko.

Ttakun Kultur Elkarteak

Azkenik, Jokin Guridi Ttakun Kultur Elkarteko kudeatzaileak hitza hartu du, azken hilabeteen jasotako gertakariak salatzen. Izan ere, TXINTXARRI-ko bi banatzailek erasoak jasan dituzte lanean ari zirela. Elkarteak instantzia jarriko du udalean, gertatutakoa gaitzetsi, eta banatzaileen segurtasuna bermatu ahal izateko neurriak eskatzeko. "Herriarren eskubidea da TXINTXARRI etxean jasotzea".



GUTUN IREKIA

TTAKUN KULTUR ELKARTEA

Babesa TXINTXARRI-ko banatzaileei

25 urte bete berri ditu TXINTXARRI aldizkariak. Boluntario eta langile askori esker lortu zuten orain mende laurden ametsa betetzea: Lasarte-Oriako etxebizitza guztietara euskara sarraraztea. Hori lortu da, hein handi batean, banatzaileen lan sakrifikuari esker. Horrexegatik aprobetxatu nahi du Ttakun Kultur Elkarteak zutabe hau ondokoa jakinarazteko; azken hilabeteen bi banatzailek eraso fisikoak eta irainak jasan dituzte TXINTXARRI banatzen ari zirela. Bi kasu izan dira, biak oso antzekoak; bi bizilagunek portaletik biraoka eta bortxaz atera zituzten banatzaileak, lanean ari zirela. Horren aurrean, elkarteak babesa adierazi die langileei, eta gertatutakoa gaitzetsi du.

Lasarteoritar guztien eskubidea da astero-astero TXINTXARRI jaso ahal izatea. Eskubide hori bermatzen du Lasarte-Oriako Udalak Ttakun Kultur Elkartearekin sinatzen duen hitzarmenak. Hortaz, banatzaileei egindako erasoak beste ondorio batzuk ere baditu: bizilagunei herriko albisteak euskaraz jasotzeko eskubidea galarazten die.

TXINTXARRI-ren aurkako beste hainbat gertaera jazo dira azken urteetan. Zenbait tokitan banatutako aldizkariak kendu dituzte postontzietatik, zakarretara botatzeko. Halere, orainoan muga onartezina gainditu da: bi langileri egin diete eraso, lan orduetan. Hori dela eta, Ttakun Kultur Elkarteak eskaera egin dio udalari, banatzaileek haien jarduna bete ahal izateko neurriak hartu ditzan. Horri esker lortuko da informazioa euskaraz jasotzeko eskubidea bermatzea.

Gabonetan, zozketak eta txu-txu tren, Aterpearen eskutik

Gabonetako kanpaina eta beste hainbat ekitaldi abiatu ditu egunotan Lasarte-Oriako merkatarien elkarteak

Txintxarri

Urteko azken kanpaina sartu da Aterpea, "urte bizi baten" ondoren. Balantze azkar bat egin du Ramon Ormazabal merkatarien elkarteko presidentek. "Helburua lortu dugu, urte hasieran ezarritako ekintzak egin ditugu; ez dira gutxi izan". Hain justu, urte berezia izan 2018a, 25 urte bete baititu herri dendarien eta ostalarien bilguneak. Halere, oraindik urtea ixteko falta zaizkie ekitaldi batzuk: Gabonetako kanpaina. 37 dendatan beste horrenbeste zesto zozketatuko dituzte. "Bakoitzak bere bezeroari partizipazio bat emango dio, eta zesto guztien zozketa egingo da abenduaren 28an, bakoitzak bere establezimenduan".

Horrez gain, hilaren 28an eta 29an, txu-txu tren jarriko dute; Okendo plazatik irtengo da, eta



Aterpeko dendariak. TXINTXARRI

herriko kaleak zeharkatuko ditu. Goizez (11:30-14:00) eta arratsaldez (17:00-20:00) arituko da. Kanpaina morderoa egin ditu Aterpeak urte osoan. Ekintza horien xedea argia da: "Gure bezeroen fideltasuna lortzea, herriarrek Lasarte-Orian gastatzea bultzatzeko".

Euskaraldia: harro eta 12. egunari puntua jarriz

11 eguneko ariketa soziala amaitu da, eta antolatzaileek parte hartzaile eta boluntario guztiak zoriondu dituzte. 3.000 izen emate lortu dira. Guztira 220.000 izan dira Euskal Herrian. Udala, herriko eragile eta norbanakoen arteko elkarlana goraiatu dute

Txintxarri

Amaitu da Euskaraldia, hizkuntza ohiturak iraultzeko 11 eguneko ariketa soziala. *Belarriprest* eta *ahobizi* txapak soinetik kenduta, datuak aztertzeko garaia dute antolatzaileek, eta horien berri eman dute. 3.000 izen emateen langara ailegatu da Lasarte-Oria. Horrez gain, asko eta asko izan dira balkoian puntua jarri duten herritarrek, ekimenari atxikimendua erakusteko. Jon Antxordoki Euskara Batzordeko buruak eta Tomas Arrizabalaga Ttakun Kultur Elkarteak parte hartzaileak eta lanean aritu diren guztiak zoriondu dituzte, batez ere etxez etxe ibili diren boluntarioak. "Euskaraldia azaltzeko eta parte hartu nahi zutenek aukera emateko egin den ahalegin berritzailea oso ondo atera da".

Bi ordezkariak nabarmendu dute Euskararen 9. Maratoiak izan duen garrantzia. "Orain bi urte egindako esperientzia horretan oinarritu da Euskaraldia. Lasarteoriatar guztiak harro egoteko arrazoi on bat gehiago badugu". Izan ere, *ahobizi* eta *belarriprest* rola herrian jaio ziren. "Gauzak egiteko eredu bat esportatu dugu".



Antxordoki eta Arrizabalaga, erronkametroaren ondoan. TXINTXARRI


Udalaren eta Ttakunen arteko elkarlana giltzarria izan da Euskaraldia ongi ateratzeko. Gainera, Antxordokik nabarmendu du alderdi politiko guztiek egitasmoa ahobatez onartu izana. Hori bakarrik ez. Arrizabalagak goraiatu du herriko ikastetxe, gazte erakunde, euskaltegi, elkarte, denda eta eragile sozial guztiek emandako babesa eta erakutsitako inplikazioa. "Ez da erraza gizarte bateko pertsonen hizkuntza ohituren aktibazio masibo bat egitea, baina neurri handi batean,

elkarrekin lan egin izanari esker lortu da".


12. eguna

Halere, bai Antxordokik eta Arrizabalagak ohartarazi dute Euskaraldia ez dela amaitu. "Hizkuntza ohituren aldaketa erdigunean jarri duen dinamika berri bat hasi da agian. Hala bada, pozgarria izango da, dudarik gabe". Hain justu, Euskaraldia entrenamendua izatea nahi dute, urteko gainerako egunetan ohitura berria gorputzean eta buruan barneratzeko.


Rolak



Generoa



Adina eta rola



NOAOA BIDAIAK

IRTEERA 2019ko ekaina
Noaoak gidatutako talde bidaiak.
Lasarte-Oriatik irtenda.

T.: 943 373 613 • info@noaoa.eus • Hipodromo Etorbidea 10, Lasarte-Oria

MAiTE

ESTETIKA ARETOA

Ordu-tegi malgu daukagu
Uistin Kalea z/g • Lasarte-Oria
Tel. 943 37 08 45

Gabon hauetan, mimatu zaitez! eta oparitu gertukoei ongizatea!

opari-bxartelak ditugu zerbitzuetan erabiltzeko

- Manikura eta pedikura
- Makillajea
- Aurpegi eta gorputz tratamenduak
- Solariuma
- Mota ezberdinetako depilazioak
- Betileen tindatzea eta lifting-a...

Ostiral arraltsaldean, talo eta sagardo artean

Gabonen aurrekari izan ohi da San Tomas, abenduaren 21ean; Okendo plazan 17:00etan irekiko ditu ateak azokak; hainbat postu egongo dira, taloak, txistorra, gaztainak eta sagardoa dastatzeko. Musikak eta giro onak ez du hutsik egingo

Txintxarri

Askorentzat berezia izango da aurtengo abenduaren 21a. San Tomas eguna ospatuko dute Lasarte-Orian, Ttakun Kultur Elkarteak antolatuta. Baina ostiral arraltsaldea izanda, azkeneraino aprobetxatu ahaliko dute askok festa eguna. Horretarako aukera izango dute Okendo plazan: 17:00etan zabalduko ditu ateak azokak, eta 20:30era bitarte izango da aukera txistorra, taloak eta gaztaina erreak jateko, konpainia ona eta sagardoaren laguntzarekin.

Jakina da Euskal Jaien ostean baserritar jantzia gertu utzi behar dela, San Tomas azoka iristen denerako. Herri askotan ospatzen dute neguko solstizioa, San Tomas azoka moduan. Lasarte-Orian ere egingo dituzte prestakizunak neguko hotzei eta elurrei aurre egiteko.

Okendora gerturatzen direnak izango dute zer jan eta edan. Talogileak arituko dira jo eta su, arto irina eta urarekin askaria prestatzen. Beste batzuk arduratuko dira txistorra frijitzear, talo artean prestatzeko. Danbolinak ere atsedean gutxi hartuko du, gaztaina erreak eskaini ahal izateko. Sagardoa



Txerria izango da azokako erakargune bat. TXINTXARRI

ere banatuko dute Ttakun Kultur Elkarteko kideek, jatekoari laguntzeko.

Horrez gain, Alboka abesbatzak, Oriarte Institutuak eta Faktoriako gazteek postu bana jarriko dute. Haurrek ere izango dute zer egin: etxeko txikiek taloa egiten ikasiko dute. Noski, prestatu ostean bertan jateko aukera izango dute.

Musikak ere ez du hutsik egingo. Ttiriki Ttarrakako trikitilariak plaza girotuko dute, erromeriarekin. Bertsolariak

ere izango dute tartea, eta Xumela abesbatzak kantuak eskainiko ditu. Erketz dantza taldeak eta Kukukak jarriko ditu herritarrak dantzan.

San Tomas eguna izan ohi da Gabonen aurrekari. Hurrengo astean egingo diote lehen harrera Olentzero, Mari Domingi eta Xixukori. Lasarte-Oriako ahate xelebreak bisita egingo du Landaberrin astelehenean. Asteartean, berriz, Sasoeta-Zumaburun izango da.



NEURE KABUZ

NEREA SEGURA

Zeroa

Zeroa minus bat eta bataren artean dagoen digitua da. Zenbaki osoa ote den matematikariek ez dute oso garbi. Dietista-nutrizionistek, aldiz, argi dugu: zenbaki arrunta da, arruntegia merkatuko apaletan. Zenbat zero dituzu sukaldean? % 0 koipeak, % 0 azukreak, % 0 edulkoratzailak... eta bere nutrizio-balioa ere, hutsa. Elikagarriak kenduz janariak urardotzen dira-eta.

Hala ere, zero balioa izatea ez da beti baliogabekoa. Laktosa edo gluten gabeko janariak, esaterako, intoleranteentzako moldatu dira. Bere betebeharra dute, baina osagaien trazak, hondarrak izan ditzakete. Alkohol edukiarekin gertatzen da ere bai. % 1,2 baino gutxiago duten edariak "SIN" etiketa daramate eta ez dute aitortu behar zenbatekoa duten; 0,0 zehaztapenak, berriz, batzen dituzten apurrak ditu.

Dena dela, kontsumitzaileok kontsumo eredua eraldatzu goaz: % 0tik (gabekieratik), km 0ra. Gure elikadura-eredua ez da jasangarria, mauka-mauka Lurra jaten ari gara. 100 km-ren bueltan ekoiztutako produktuak lehenetsita, lortzen dugu: garraio kostuak gutxitzea, hondakinak murriztea eta janariak heltze-une onenean jasotzea. Orain bai, zero hitza bere osotasunean erabilia: zero zabor eta zaporea bere osotasunean bermatuz. Beraz, tokian tokikoak erosiz, hurbileko ekoizleak indartu eta herriko ekonomia garatzen da. Inguru ezkorra utzita, baikorrerantz goaz.

Hurrengo pausoa? Gosea Zero helburua. FAO txostenak dioenez, bederatzi pertsonetatik batek azpielikadura kronikoa pairatzen du. Estutasunean gaude, zerori ere; gure bezero ohiturek eragin handia dutelako: elikadura osasuntsurako, ingurumenerako, ekonomiarako eta besteenganako. Hartu kontrola, aukeratu rola, egin dezagun frogia!

Pentsioen alde manifestazioa egingo dute Donostian

Lasarte-Oriako Pentsiodunen eta Erretiratuen Koordinakundeak larunbatean manifestatzera deitu du, pentsio publiko duinen alde. Donostian egingo dute protesta ekintza, 16:30ean, Alderdi Ederren. Manifestazio masiboa izatea nahi dute, eta horregatik,

pentsiodunetz gain gazteak ere gonbidatu dituzte. Bestalde, Gipuzkoako Jubilatuta eta Pentsiodunen Duintasuna Elkarteak Lasarte-Orian hitzaldia antolatu du datorren asterako. Asteartean, hilaren 18an, Antonio Merceron *Pentsioen oraina eta etorkizuna* hitzaldia emango dute Maria Serrano Duintasunako kideak eta Nerea Kortajarenak, EH Bilduko legebiltzarkideak.

Mari Domingik eta Olentzerok laguntzaileak behar dituzte

Galtza gorritxoek eta baserriko animaliek lagunduko dituzte bi pertsonaiak Lasarte-Oriako desfilean

Txintxarri

Abenduaren 24ean lan nekeza izango dute Olentzerok eta Mari Domingik, Euskal Herri osoan opariak banatu behar baitituzte. Baina Lasarte-Orian behintzat laguntza izango dute: galtza gorritxoek eta baserriko

animalitxoek lagunduko dituzte. HH5-LH2 arteko haurrek desfilean parte hartzeko aukera izango dute; horretarako izena eman beharko dute Ttakun Kultur Elkartearen.

Horrez gain, Gabonak prestatzeko beste hainbat ekintza

antolatu dituzte; Mari Domingiren eta Olentzeroren etorrera prestatzeko tailerrak egingo dituzte abenduaren 17an (17:30-19:00) eta 18an (18:00-19:30). HH2-LH2 arteko gaztetxoentzat izango da.

Gabonetako oporralditxoak aprobetxatu dezakete txikitxoek, jaki tipikoak prestatzen: taloak. Talo tailerra egingo dute abenduaren 19an, bi txandetan. Lehenengoa 17:00etan izango da, eta, bigarrena, 18:00etan, Ttakunenean.



Galtza gorritxoak, Olentzerori itxaroten. TXINTXARRI

Multiópticas Lasartek azken belaunaldiko erretinografoa du, erretina azterketak egiteko



Multiópticas Lasartek haien paziente guztiei erretinako premium azterketa eskaini diezaieke, azken belaunaldiko erretinografoari esker. Aparatu horri esker, edozein zeinu patologiko antzeman dezakegu garaiz, erretinaren bereizmen handiko irudiak ateratzen baititu.

Begiaren gaixotasunak, hala nola, glaukoma, degenerazio makularra, erretinopatia diabetikoa eta erretinopatia

pigmentarioa, besteak beste, antzeman daitezke azken belaunaldiko sistema berri honen bidez, eta, modu horretan, saihestu ikusmenean atzera bueltarikez duten kalteak eragitea.

Multiópticas Lasartek oso argi ditu bere helburuak: **haren langileei formakuntza jarraia eskaintzea eta punta-puntako teknologia eskuratzea, bere pazientei ahalik eta arreta pertsonalizatuena eskaintzeko.**

Zure osasun bisuala da gure lehentasuna

ABENDUAN MULTIOPTICASEK DOAKO ERRETINAKO AZTERKETA PREMIUMA EGINGO DIZU.

DEITU ETA EGIN HITZORDUA,

943 37 74 56



85 EUROTAN BALORATUA



MULTIOPTICAS
lehen zerbitzu optikoetan

Kale Nagusia, 15
Tel.: 943 37 74 55
LASARTE-ORIA

PLAZAN BAZAN



Zeintzuk dira puzzlea osatzeko falta diren hiru piezak?

Pareak bai!

Hau da eskularru pila! Politak eta koloretsuak dira, ezta? Baina batek parea falta du. Zein da?



TXOTIBURUAK Maripuntzilek eta Pelloziririk ez dute gaur gauza bat bera ere ondo egin. Baina, baina... zer ote dute buruan?

Pellozirik elur-bolak bota edo JAURTI dizkio Maripurtzili. Egin ezazu sudokua, hitz hori osatzen duten letrak erabiliz (J, A, U, R, T eta I). Gogoan hartu hizkietako bakoitzak behin agertu behar duela lerro, zutabe eta area bakoitzeko.

SUDOKUA

		U			
			i	R	
i		J			
		R	J		T
	A	i			
			A		



SOSLAIA

Zein da zomorro itsusi honen silueta zuzena?



Soluzioak: www.plazanbazan.eus

Egilea: Garbiñe Ubeda



Ttakuneko bazkide zara?

Zozketa!

Gure bazkideen artean zozketatuko ditugu!

Ttakuneko bazkide izanda, herriko euskararen eta kulturaren sustapenean lagunduko duzu

Nafarroa hegoaldeko produktuez osatutako **SASKI EDER BAT** zozketatuko dugu **BAZKIDE GUZTIEN** artean



- Oliba-olio birjina estra
- Ozpina
- Mahats-zukua
- Orburu bihotzak
- Piper txorizero mamia
- Potxak
- Ardo beltza
- Zainzuri zuriak
- Arbendolak
- Borraja
- Pikillo piper osoak
- Melokotoia almibarretan
- Tomate frijitua

*ekologikoa

Elikatu euskara!

GUGGENHEIM Bilbao museorako 2 sarrera
(abenduaren 30erako soilik baliagarriak)



*Sarrerak lortzeko eman izena abenduaren 17a baino lehen harpidetza@ttakun.eus helbidean, bulegoan, 943371448 zenbakira deituta edo 646824466 Whatsapp-ean.

Urteko bazkidetza
54€



Larunbateei gorazarre

Jalgunereren urteroko jaialdia

Nork ez ditu gustuko larunbatak? Izan ere, zenbat gauza egin daitezke egun horietan? Nahi adina lo egin, dantzatu, abestu, magia jokoak egin, telebista ikusi, gehiago dantzatu, berriz ere abestu... Eta, noski, Jalguneko urteko jaialdian dibertitu. Abenduaren 1ean, larunbatean, elkarteko kideek urteroko jaialdia egin zuten, hain zuzen, asteburuko egun horri gorazarre egiteko. Erakutsi zuten zergatik gustatzen zaien bereziki asteke egun hori; Jalgunen elkartzen direlako denak, kide eta begiraleak, bazkal ostean. Ongi pasatzeko eta aisiaz gozatzeko bakarrik ez, beste gauza asko ere egiten dituzte Jalgunen. Joxerra Gonzalezek ongi azaldu du amaieran: elkarri laguntzen ikasten dute, norberak gaitasun desberdinak izan arren, denak berdinak direlako. "Etiketak alde batera uzten badituzue, ezuste politak hartuko dituzue".



Jalguneko kideak, ikuskizuna amaitu ostean ateratako taldeko argazkian. TXINTXARRI



Gutzira ordu eta erdiko ikuskizuna eman zuten. Kultur etxea goraino bete zen. Dantzen artean hai



Holtza gainean dena eman zuten Jalguneko dantzariak. TXINTXARRI



Semblante Andaluzeko lagunekin sevillanak dantzatu zituzten. TXINTXARRI



mbat bideo eta argazki jarri zituzten. TXINTXARRI



Goian, Joxerra Gonzalez, hitzaldirako prestatzen. Behean, amaierako agurra. TXINTXARRI



Gazte Klubekoekin magia jokoak egin zituzten. TXINTXARRI



Goian, Zabaletako lagunekin dantzan. Behean, baserritarrez mozorrotuta. TXINTXARRI



Inauterietako mozorroak ere aprobetxatu zituzten ikuskizunerako. TXINTXARRI

Saskibaloiaeren geroa, Lasarte-Oriako kantxan

Kadete mailako lau selekzioak lagunarteko txapelketa jokatu dute Maialen Chourraut kiroldegian, asteburuan: Euskadi, Nafarroa, Galizia eta Asturias aritu dira nor baino nor gehiago. Lau urte daramatza Ostadar Saskibaloiak horrelako ekitaldiak antolatzen

Iñigo Gonzalez Sarobe

Gazteak dira, asko daukate ikasteko oraindik, baina dohainak badituzte. Etorkizunean zeresan handia eman dezaketela erakutsi dute Maialen Chourraut kiroldegian elkartu diren jokalariek. Kadete mailako lau selekzio aritu dira nor baino nor gehiago: Euskadi, Nafarroa, Galizia eta Asturias. Ostadar Saskibaloiak antolatuta du kirol ekitaldia, laugarren urtez. Endika Marrahi da sailaren arduraduna: "Eskerrak eman nahi dizkiogu Euskadiko Saskibaloia Federazioari ematen digun konfiantzagatik; kiroldegia ere bai, urtero erraztasun gehiago ematen dizkigulako; eta udalari, ekimena babesten duelako".

Kadete mailako mutilak aritu dira aurten. Marrahi azaldu du txandaka egiten dutela: 2015ean infantil neskek etorri ziren; 2016an, kadete mutilak; eta iaz, kadete neskek. "Infantil mutilek Deban jokatu dute.



Euskadik 68-41 irabazi zion Nafarroari igande goizean. TXINTXARRI

Neskek, berriz, Asturiasen ibili dira". Urtarrilaren 3tik 7ra jokatu dira Espainiako txapelketak, Huelvan (Andaluzia). Abenduko zubia baliatzen dute prestaketa bukatzeko eta kompetiziorako prestatzeko.

"Euskadi, Galizia eta Asturias selekzio gogorak dira; Nafarroaren maila zertxobait baxuagoa da, baina konpetitua egin dute partida guztietan". Marrahiaren analisia. Maila altuko saskibaloia eskaini dute lau selekzioek asteburuan.

Galizia izan da neurketa guztiak irabazi dituen bakarra. Aise gairitu zuen Nafarroa, 32-94, baina komeria gehiago izan zituen Euskadiren eta Asturiasen aurka. 66-62 eta 73-76 irabazi zieten, hurrenez hurren. Azkeneko partida erabakitzeke luzapena jokatu behar izan zuten.

Galiziak, hirutik hiru

Asturiasek ere joko-maila altua erakutsi du asteburuan; gutxiatik galdu zuen Galiziaren aurka, baina beste bi partidak irabazi zituen. Euskadiren aurkakoa, hamahiru puntugatik (56-69); Nafarroari hemeretzigatik irabazi zion (72-53).

Txapelketako azkeneko neurketa Euskadi eta Nafarroaren artekoa izan zen. Bi taldeak gogotik saiatu ziren, inork ez zuelako nahi partidarik irabazi gabe geratu. Euskadi zen faboritua, eta bete egin ziren aurreikuspenak. Beste bi partidatan ongi jokatu zituen lehenengo bi laurdenak, baina atsedenditit bueltan jaitzi egin zuen maila. Hori ez zitzaion gertatu Nafarroaren aurka, eta islatu zen markagailuan: 68-41.

Maialen Chourraut kiroldegiko harmailak dezente bete dira txapelketako bi egunetan. Saskibaloia munduko aurpegi ezagunen bat edo beste ere ikusi dute herritarrek: ACB mailan eta Euroligan ari den Sasaki Baskoniako lehendakari Josean Kerejeta etorri da Lasarte-Oriara. Euskadin jokatzen du semeak.

Harrobiko neska zein mutilen selekzioen arteko txapelketak ohiko bilakatu dira herriko saskibaloia egutegian honezkerok. Laugarrenez antolatu du aurten Ostadar Saskibaloiak. Eta zabalagoa da egutegia. Esate baterako, 3x3 txapelketa. Aurtengoa seigarren edizioa izango da, eta abenduaren 29an jokatuko da, larunbatarekin, Maialen Chourraut kiroldegian. Izen-emate epea hiru egun lehenago itxiko dute. Parte hartu nahi duten jokalariek Ostadar SKTren bulegora joan beharko dute (Geltoki kalea, 25), 18:00etatik 20:00etara.

Saskibaloia gehiago abenduan

Herritik kanpo ere gozatzen dute saskibaloiaz. 3x3 txapelketa jokatu eta hurrengo egunean, abenduak 30ean, Sasaki Baskonia eta Real Madrilen aurkako neurketa ikustera joatekotan dira. Endesa ligan jokatzen dute bi taldeek. Madrildarrak dira egungo txapelkunak, eta talde arabarra txapelkunordea. Sarrera eta autobusa eskaintzen ditu Ostadarrek: 14 urte baino gutxiago dituztenek 20 euro ordaindu beharko dituzte, eta 25 besteek. Izen-ematea, lokalean.

GALIZIA IZAN DA JOKATUTAKO HIRU NORGEHIAGOKAK IRABAZI DITUEN SELEKZIO BAKARRA

ASTEBURUKO KIROL HITZORDUAK

FUTBOLA
ERREGIONAL OHOREZKO MAILA
Ostadar SKT - Tolosa CF Larunbata. 17:30. Michelinen.
ERREGIONALEN GORENGOA
Ostadar SKT - Billabona KE Larunbata. 15:45. Michelinen.
ERREGIONALEN 1. MAILA
Ostadar SKT - Lengokoak KE Igandea. 10:30. Michelinen.
JUBENILEN OHOREZKO MAILA
Amaiak Bat KE - Ostadar SKT Igandea. 16:30. Errotazar, Deban.
JUBENILEN 1. MAILA
Usurbil FT - Ostadar SKT Larunbata. 17:45. Harane, Usurbilen.
KADETEEN OHOREZKO MAILA
Ostadar SKT - Sane Larunbata. 11:15. Michelinen.
KADETEEN 1. MAILA
Usurbil FT - Ostadar SKT A Igandea. 11:00. Harane, Usurbilen.
Ostadar SKT B - Intxurre KKE Larunbata. 12:45. Michelinen.
INFANTILEN OHOREZKO MAILA
Ostadar SKT - Danena KE Larunbata. 14:15. Michelinen.

INFANTIL TXIKIAK, SAILKATZE FASEA
Billabona KE - Ostadar SKT Larunbata. 10:00. Arratzain, Villabonan.
INFANTILEN 1. MAILA
Aralar Intxurre KKE B - Ostadar SKT A Larunbata. 09:30. Elorri, Alegin.
Aralar Intxurre KKE A - Texas Lasarte CF Larunbata. 11:30. Elorri, Alegin.
Ostadar SKT B - Urnieta KE Larunbata. 09:45. Michelinen.
INFANTILEN F-8
Aralar Intxurre KKE - Ostadar SKT Igandea. 11:00. Elorri, Alegin.
ARETO-FUTBOLA
HERRIKO TXAPELKETA
Patricio Cocktail Bar - Academia London Larunbata. 09:15. Michelinen.
Buenetxea taberna - Avenida taberna Larunbata. 10:15. Michelinen.
Viña del Mar - Trumoi taberna Larunbata. 11:15. Michelinen.
Insausti taberna - Asador Irigoien Larunbata. 12:15. Michelinen.
NAZIONALA 3. MAILA
Sasikoa Durango CD - Antiguoko KE Igandea. 12:00. Landako kir., Durangon.

GIPUZKOAKO SENIORRA
Idiazabal BaiReformas - Aldaz Klinika Larunbata. 18:00. Zelaa kir., Idiazabal.
Ordizia KE - Garoa Taberna Igandea. 11:00. Majori kir., Ordizian.
GIPUZKOAKO 2. MAILA
Futsal Isu Leihoak - Pizzeria B17 Ostirala. 20:50. M. Chourraut kiroldegian.
GIPUZKOAKO JUBENILEN MAILA
Gael Elkartea - Bar Lasarte Igandea. 12:30. HARRIPILA PIL., Legorretan.
GIPUZKOAKO KADETEEN MAILA
Balardi Harategia - Lauburu K.E. Ibarra 2004 Larunbata. 09:30. M. Chourraut kiroldegian.
SASKIBALOIA
SENIOR EMAKUMEZKOAK
Ostadar SKT - Grupo EME Oiarso SKT Larunbata. 16:00. M. Chourraut kiroldegian.
SENIOR HIRUGARREN MAILA
Ostadar SKT - Larramendi ILK Larunbata. 18:00. M. Chourraut kiroldegian.
JUNIOR ERRENDIMENDUA
Ostadar SKT A - Eskoriatza KE Larunbata. 11:15. M. Chourraut kiroldegian.

JUNIOR PARTEHARTZEA
Ibaeta BeraBera - Ostadar SKT B Igandea. 11:15. M. Chourraut kiroldegian.
KADETE ERRENDIMENDUA
ZAST Zarautz ZKE - Ostadar SKT A Larunbata. 18:30. Antonianos kirol., Zarautzen.
KADETE PARTEHARTZEA
Ostadar SKT B - Bera Bera Larzabal kris. Igandea. 09:30. M. Chourraut kiroldegian.
PILOTA
PROFESIONALAK, BIKOTEKA
Artega II eta Etcheagoien - Peña II eta Aranguren Ostirala. 19:30. Herriko pilotalekua, Arrigorriagan.
LASTERKETA
ZIZURKILGO GAU KROSA
Hainbat herritarrek XXII. Zizurkilgo gau krosean parte hartuko dute. Larunbata. 22:30. Zizurkilgoan.
TXIRRINDULARITZA
PISTA
Buruntzazpi txirrindularitza eskolako kideek Bio Racer-Oiartzun Bike Pista Sariko jardunaldian parte hartuko dute. Larunbata. 15:30. Antonio Elortza belodromo, Donostian.

ERRUGBIA
OHOREZKO B MAILA
Babyauto Zarautz RT - CRAT A Coruña Igandea. 12:00. Asti, Zarautzen.
EUSKAL LIGA
Iruña RC - Babyauto Zarautz Beltzak RT Larunbata. 16:00. Iruñean.
18 ETA 16 URTE AZPIKOAK
Babyauto Zarautz Beltzak - Hernani CRE/Ati. San Sebastian Larunbata. 10:00 eta 11:30. Asti, Zarautzen.
IGERIKETA
NEGUKO LIGA
Buruntzaldea IKT-ko infantil, junior eta seniorrek Neguko Ligako 4. jardunaldian parte hartuko dute. Larunbata. 16:00. Majori kir., Ordizian.
SARI BANAKETA
IV. KIROLAREN FESTA
2018an nabarmendu diren Iraia Iparragirre eta Raul Gomez kirolariek saria banatuko die udalak. Pili Bodegasek kirol-ibilbidearen saria jasoko du. Larunbata. 12:00. Udaletxeko batzar-aretoa.

**EGUBERRIETAKO
KANPAINA
2018**

Abenduaren 28a arte

Erosi Lasarte-Orian eta lortu Eguberrietako sorta aparta!

Multiópticas LASARTE	ISU leihoak
OLMI mertzeria	MAY ile-apaindegia
MARBELL ile-apaindegia	ADATS orraztegia
ORMAZABAL loradenda	KAIZEN altzari eta dekorazioa
MABEL moda	MAYA lentzeria
SANTANA informatika	OLA markogintza
MILLA finken administrazioa	BUENETXEA kafetegi-taberna
ALCAR leihoak	URRUZOLA mertzeria
OIHANA estetika	ETXARRI argazkiak
BEA ile-apaindegia	LEDER oinetakoak
ARREGUI elektrizitatea	HALCÓN bidaiak
ORBELA ekodenda	BIDEO LAGUNAK
LIZARRI optika	TXEMA taberna
ANA gizonezkoen ile-apaindegia	AMALUR ziberlokutorioa
ITURBE zapata-denda	ARKUPE taberna
SUKOIA burdindegia	IMAGINE Jantzi Denda
MARIAN OLAIZOLA ile-apaindegia	VIÑA DEL MAR Kafetegia
NOGUÉS moda	SILVIA LUIS ARBIZU
ALBA moda	finken admin.

ZATOZ LASARTE-ORIARA!

DOHAIN ATERAKO

ZAIZU

Iparragirre, Bodegas eta Gomez saritu ditu udalak

Udalak aurten nabarmendutako Lasarte-Oriako kirolariei omenaldia egingo die bihar, larunbatean. 11 hautagaitik hiruk jasoko dute saria; Iparragirre futbolariak eta Gomez korrikalariak urteko merezimenduengatik, eta Bodegas triatloilariak kirol ibilbideagatik

Txintxarri

Lasarte-Oriako kirolari nabarmenenak aukeratu ditu udalak. Iraia Iparragirre, Raul Gomez Margallo eta Pili Bodegasek udalaren omenaldia jasoko dute bihar 12:00etan udalbatzar aretoan.

Herriarrek hamar proposamen aurkeztu zituzten, bakarra emakume kirolari sarirako: Iparragirre bera. Gizonezko kirolari eta kirol ibilbideko sarirako hautagaiak erabaki behar izan ditu Kirol Batzordeak. Hautagaiak Aitor Manso karting pilotua, Ander Bardaji atezaina eta Gomez Margallo korrikalaria izan ziren. Kirol ibilbidearen kategorian, berriz, hauek izan ziren proposamenak: Pili Bodegas triatloilaria, Andoni Illarramendi triatloilaria, Gomez Margallo bera, Amaia Andres atleta, David Martin kros korrikalaria eta Buruntzazpiko Txirringarritza Eskola.

Saridunak

Ostadar SKTko harrobian hasi zen jokatzeko Iparragirre. Añorgako Rezola zelaian ondu zen defentsa bezala, eta 2015-2016 denboraldian eman zuen jauzia; Realak fitxatu zuen



Pili Bodegas aurteko Gipuzkoako esprin txapelketako saria eskuetan. KARMELE G.

orduan. 2016ko apirilean egin zuen debuta, Oviedon. 2017-2018 denboraldi hasiera gogorra izan zuen, baina entrenatzaile aldaketarekin batera, hamaikakoan ezinbesteko jokalaria bihurtu da.

Gizonezko kategoriako saria Gomez Margallo korrikalariari emango diote. Herri lasterketetan ohiko korrikalaria da. Gainera, lehen postuetan ibiltzen da beti. Aurten Egiako Porrontxoetan eta Iruneko San Martzial lasterketako podiumeko lehen koskara igo da. Horrelako emaitzei esker,

azken lau urteetan Kirolprobako ligako txapela eskuratu du. Aurteko txapelketan hirugarren da sailkapenean, Victor Madejon eta Gorka Gil herritarren atzetik, lasterketa batzuren faltan.

Azkenik, Bodegas triatloilariaren ibilbidea omenduko dute. Yepa! triatloi taldeko lasarteoriatarra beterano mailako esprint mailako Gipuzkoako txapelduna da. Triatloiaz gain, herri lasterketa zein krosetan eta igeriketa probetan ere lehiatzen du, emaitza onak lortuz.

Buruntzaldea IKTko igerilari gazteak, garapen egokian

Ainhoa Martinek Castalia Castellon Nazioarteko Sariko 200 bular proban lehiaketako errekor berria ezarri du

Txintxarri

Buruntzaldea IKTko igerilarietako hainbat proba izan dituzte aurreko asteburuetan. Ainhoa eta Leire Martin ahizpak Gipuzkoako selekzioarekin lehiatu dute XV. Castalia Castellon Nazioarteko Sarian, abenduaren 8an eta 9an; Bestalde, abenduaren 1ean alebin, infantil, junior eta absolutuek Ligako 3. jardunaldia izan dute.

XV. Castalia Castellon Nazioarteko Sarian Leire eta Ainhoa Martinek hainbat probatan parte hartu dute. Lehiaketa hau indarrak neurtu eta junior mailako Neguko txapelketa prestatzeko baliagarri izan zaie.

Ainhoa 200 m. eta 100 m. bular probetako podiumera igo da. 200 m. bular probako urrezko domina jantzi du, txapelketako errekor berria ezarrita: 2:3713.

100 metroko proban, berriz, hirugarren izan da.

Leirek bi laugarren postu eskuratu ditu, 400 m. estilo eta 200 m. bizkar proban.

Ligako jardunaldia

Horrez gain, infantil, junior eta absolutuek Neguko 3. jardunaldia jokatu dute Hernanin, eta alebinek Andoaian.

Infantil, junior eta absolutuek 22 marka pertsonal berri egin dituzte. "Orokorrean, maila egokian aritu dira igerilariak, batez ere jardunaldi hauetan parte hartzeko prestakuntza berezirik egiten ez dutela kontuan hartuz."

Alebinek 200 m. libre eta 100 m. tximeleta probak egin dituzte Andoaingo jardunaldian, eta gazteetako asko aurreko postuetan izan da. "Hobetzeko eta ikasteko asko duten arren, maila polita dutela erakutsi dute".



Alex Saleta, erdian. BELTZAK

Alex Saleta gaztea, Espainiako selekzioarekin lanean

18 urtez azpiko Espainiako selekzioarekin egon da kontzentratuta Alex Vega herritarra, abenduaren 3tik 9ra Valladoliden. Lagunarteko lehiaketa den Mele Torneoan parte hartu du. Lau norgehiagoka jokatu dituzte, eta denetan aritu da hasieratik lasarteoriatar gaztea. Ederki jardun eta entseguak ere lortu ditu.





AURRENTZAKO ABENDUAREN 27an!

ABONETAKO

ARKERA goaz! BEC-era

LH3-LH4-LH5-LH6koentzat

Goizeko 9:30etatik 18:30ak arte
Bazkaria eta merienda eramanez behar da.
27€ (Ttakuneko bazkideak 24€)

GAZTE KLUBA

ZORION AGURRAK



Zuriñe
Zuriñe, ondo pasa igandean zure 12. urtebetetzean. Muxuak!!



Maite
Zorionak zure urtebetetzean, oso ondo pasa dezazula. Zure semeak eta senarrak bazkari on batera gonbidatuko zaituzte.




Odei
Zorionak Odei. Muxu pila bat familia guztiaren partez. Asko maite zaitugu!!



Mariluz eta Eusebio
Zorionakkkkkk aitona-amona zuen urtebetetzeengatik!!! Ondo pasa eta muxu pila zuen biloba Eneritz, Eñaut eta Laiaren partetik.



June
Zorionak printzesa!! Azkenean iritsi da zure eguna!! 9 muxu potolo aita, ama eta familia osoaren partetik.



Maitane
Zure bizitza urtez beterik ez dadila egon, baizik eta urteak bizitzaz beterik egon daitezela.



Jon
Zorionak Jon. Gure ebeko txikiak bi urte bete ditu. Asko maite zaitugu!!!! Muxu erraldoi bat.



Gorka eta Unai
Zorionak aiton-amonen partetik. Muxu pila bat polit horiek.

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK:

ERREGISTROA: 943 371 629
EUSKARAKO ZERBITZUA: 943 376 184
KIROLDGIA: 943 376 182
MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA: 9 43 376 181
GIZARTE ZERBITZUAK: 943 376 179
KIUB: 943 361 605
UDAL EUSKALTEGIA: 943 361 621
MUNTTERI AEK: 607 625 233

LARRIALDIKO TELEFONOAK:

OSASUN ZENTROA: 943 007 960
DYA: 943 464 622
GURUTZE GORRIA: 943 363 953
UDALTZAINAK: 943 362 442
ERTZAINZA: 943 538 840
SOS DEIAK: 112

GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala, 14 ORUE
Larunbata, 15 ACHA-ORBEA
Igandea, 16 ACHA-ORBEA
Astelehena, 17 URBISTONDO
Astearte, 18 GIL
Asteazkena, 19 ORUE
Osteguna, 20 ACHA-ORBEA

EGUNEKO FARMAZIAK: 9:00-12:00

ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74
GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29
URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67
GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21

GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00


Castilla-Larburu: Urbietakalea 7, Hernani/ 943 55 29 41

Gipuzkoako farmazien eskuko telefonorako 2017ko egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 215800 zenbakira.


Gehieneko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera (www.cofgipuzkoa.com).

EGURALDIA LASARTE-ORIAN

Ostirala, 14




Larunbata, 15




Igandea, 16




Astelehena, 17



Astearte, 18



Asteazkena, 19



SUDOKUA

5	8					7		
				9		8	3	2
	2		1	7	8	6		
9		8						1
2		7	9	5			6	8
6		5	8			3		9
8	6		5	3	2	9		
	9				1		5	
	5		7	4			8	

JAIOTAKOAK

Celine Osahenruwen Igori Enoruwa. Abenduaren 8an.
Beñat Urruzola Berasategi. Abenduaren 8an.
Udane Gonzalez Martin. Abenduaren 4an.
Maren Notario Herrero. Azaroaren 27an.
Thais Nuñez Gabaldon. Azaroaren 24an.
Irati Errandonea Illarreta. Azaroaren 24an.

HILDAKOAK

Joxepa Iribarren Garayalde. Abenduaren 8an.
Santiago Cano Perez. Abenduaren 8an.
Luisa Juarez Vicuña. Abenduaren 5an.
Maria Del Carmen Reina Caceres. Abenduaren 4an.
Loli Perez Fernandez. Abenduaren 2an.

OHARRAK

San Silvestre boluntario bila

Iaz parte hartu zuten 90 boluntarioei eskerrak eman dizkie San Silvestre lasterketako antolakuntzak. Era berean, herritarrak animatu nahi ditu aurtengo edizioan laguntzera. "Boluntario-lana erraza da eta denbora-tarte laburrekoa. Zure laguntza oso garrantzitsua da eta talde-lan ederrean parte hartzeko aukera izan dezakezu. Animatu eta jar zaituzte gurekin harremanetan horretarako dugun San Silvestre Lasarte-Oria facebook-eko perfillean edo info@sansilvestrelasarteoria.com".

Danok Kideren Jaiotzen lehiaketa

Danok Kidek martxan jarri du Gabonetako jaiotzen lehiaketa. Neurritz gehienez 80x60 cm.-takoa izan behar dute. Adinaren arabera lau kategoria egongo dira. Jaiotzak abenduaren 19an eta 20an utzi behar dira elkartean.

Erketzen Eguberri errondako entseguak

Erketz EDT taldea abenduaren 24ean herriko baserrietatik kantari irtengo da. Hitzordua prestatzeko abenduaren 20an bilduko dira, 20:00etan taldeko lokalean, KZgune ohia.

Beltzak taldeko zestoa

Beltzak Errugbi Eskolako zesto handia abenduaren 21ean zozketatuko dute, ONCEko zozketaren azken lau zenbakiekin. Errifak taberna laguntzailetan daude.

Biyak Bat elkarteko loteria

Biyak Batek jakin arazi nahi du bazkideek Gabonetako loteria erosteko aukera izango dutela. Horretarako bazkide txartela erakustea ezinbestekoa izango da.


Korrikako postua San Tomasetan

Abenduaren 21ean, San Tomas azokan, 21. KORRIKAKo arropen postua jarriko du Lasarte-Oriako Muntteri-AEK euskaltegiak, 18:00tik 20:00ra, Okendo enparantzan.

Ostadarrek hasi du bazkideetza kanpaina

2019. urteko bazkideetza kanpaina hasi du Ostadar SKTk. Hainbat kuota dituzte, adinaren arabera. Kirol proiektua laguntzen dutenek hainbat abantaila eta deskontu dituzte Ostadarren ekitaldietan. Informazio gehiago <http://www.ostadarskt.eus/> webgunean.

KOMIKIA



AZOKA TXIKIA

SALEROSKETA

SALGAI
Sapphire 2 lau gurgildun motorra salgai. Harremanetarako, 664 609 596, Aintzane.

LANA

ESKAINNTZA
Lasarte-Oriako taberna batean astebururako

zerbitzaria behar da. Interesa duten pertsonak 666 461 595 zenbakira deitu.

ESKARIA

Pertsona bat eskaintzen da edozein lanetarako: eraikuntza, baserri lanak... 643 787 637.

Pertsona eskaintzen da adineko pertsonak

zaintzeko. Orduka, asteburuetan eta jaiegunetan zein ospitalean gaueko zaintzak egiteko prest. 606661048/943-404015

Lan egiteko prest nago, 14:00etatik aurrera edo asteburuetan. Haurrak edota adinekoak zaindu, garbiketa egin... Telefonoa: 688715958

Lan egiteko prest nago, interna gisa. Telefonoa: 687 355 095


NABARMENDU ZURE EDUKIA

Iragarki nabarmenduak soilik kobratuko dira, azoka txikiko iragarkiak doan izango dira

TAMAINA BERRIA
Modulo txikia. 12 € + BEZ publizitatea@ttakun.eus 646.824466

TAMAINA BERRIA
Modulo handia. 20 € + BEZ publizitatea@ttakun.eus 646.824466

MANTTANGORRI HIRIBUSA



Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:05	12:15	12:20	12:25
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

txintxarri

www.txintxarri.eus

Argitaratzailea
Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
20160 LASARTE-ORIA
G-20407557

Administraria
Nerea Garziarena.

Erredakzioa
Nerea Eizaguirre, Iñigo Gonzalez, Maddi Noriega eta Adrian Garcia.

Publizitatea
Irati Zatarain.

Laguntzaileak
Unai Muñoa, Gorka Lasa, Mailu Arruti, Asier Odirozola, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Maider Galardi, Mikel Yarza, Nerea Segura eta Aizpea Amas.

Banatzaleak
Ioar Gainza, Egoitz Epelde, Iñigo Ibarburu, Mikel Valdes, Naiara Goikoetxea.

Informatikoa
Beñat Gonzalez

PUBLIZITATEA
Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (106)
publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA
Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@txintxarri.eus

Inprimategia
Zerua Multimedia, S.A.

Lege Gordailua: SS-513/94
ISSN: 1134-0053
Tirada: 8.000 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLITICA LINGÜISTICA



Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENA ARRATSALDEA BAINO LEHEN.

OSTIRALA 14

LASARTE-ORIA Kontzertua

Maidar Legarreta eta Pablo Costasek pop baladak eskainiko dituzte haien emanaldian. *Leku guztietan kultura* ekimenaren barruko ekintza. Kale Nagusia, 19:00etan.

LASARTE-ORIA Erakusketa

Biyak Bat elkarteak kideek haien tailerretan egindako erakusketa jarri dute. Gabonetan oinarritutako lanak dira. Igandera arte izango dira ikusgai. Biyak Bat elkarteak, egun osoan.

LARUNBATA 15

LASARTE-ORIA Kontzertua

Gabonen aurrekari gisa, Alboka Abesbatzak gabon kantzez osatutako kontzertua eskainiko du. Ama Brigitarren komentua, 20:00etan.

HERNANI San Tomas

San Tomas azoka antolatu dute. Nekazarien produktuen postuak ikusgi izango dira. Arratsaldean erromeria izango da Patxi Perez taldearen eskutik. Plaza Berria, 11:00etatik aurrera.

USURBIL 'Musua' ikuskizuna

Pirritx, Porrotx eta Marimototsek *Musua* lan berria aurkeztuko dute. 7 euro aurrez eta egunean, 8 euro. Oiardo kirodegia, 16:00etan eta 18:30ean.

IGANDEA 16

USURBIL San Tomas

San Tomas azoka antolatu dute. Haurrentzako ipuin kontaketa, babarrun eta sagardo lehiaketa, gaztainak, taloak eta herriko ekoizleen postuak izango dira. Pilotalekua, 11:00etatik 14:00etara.

LASARTE-ORIA Bulego ibiltaria

San Frantzisko kalean egingo du udalak asteburu honetan bulego ibiltaria. Herritarrek kexak eta iradokizunak azaldu ahaliko dizkiete udal ordezkariari. San Frantzisko kalea, 10:00etan

ASTELEHENA 17

LASARTE-ORIA Tailerra

Olentzero eta Mari Domingiren



LASARTE-ORIA Talo tailerra. Gabonak ate joka ditugu eta ekintza berezi ugari antolatu ditu Ttakun elkarteak. San Tomas egunari aurre hartu eta giroan sartzeko, taloak egiten ikasteko tailerra antolatu dute Amaraun Kluba eta Solaskide egitasmoek. Artairinez zikinduko dituzte eskuak haur eta gurasoek taloari forma ematen. Ostean, taloa dastatzeko aukera izango dute. Bi txanda izango dira eta beraz, parte hartzeko izena ematea beharrezkoa da. Ttakuneko bulegoan, aisia@ttakun.eus edo 695785392 telefonoan egin daiteke inskripzioa. Ttakunenea, asteazkena, 17:00etan eta 19:30ean.

etorrera prestatzeko tailerra egingo du Amaraun Kluba. HH2 eta LH2 maila arteko haurrek parte hartu dezakete. Ttakuneko bulegoan, aisia@ttakun.eus edo 695785392 telefonoan izena eman behar da. Osasun zentroko 2. solairua, 17:30ean.

LASARTE-ORIA Ipuin kontalaria

4 eta 5 urteko haurrek ipuinen munduan barrena bidaiatuko dute Pello Añorgaren eskutik. Manuel Lekuonako haurren liburutegia, 18:00etan.

ASTEARTEA 18

LASARTE-ORIA Hitzaldia

Maria Serrano, Duintasunako kideak eta Nerea Kortajarena EH Bilduko legebiltzarkideak *Pentsioen oraina eta etorkizuna* hitzaldia eskainiko dute. Duintasuna Elkarteak antolatuta. Antonio Mercero aretoa, 11:00etan.

LASARTE-ORIA Tailerra

Olentzero eta Mari Domingiren etorrera prestatzeko tailerra egingo du Amaraun Kluba. HH2 eta LH2 maila arteko haurrek parte hartu dezakete. Izena eman behar da. Osasun zentroko 2. solairua, 18:00etan.

LASARTE-ORIA Literatura txokoa

Lasarte-Oriako literatura txokoko kideek *Gelditu zaitzte gurekin*

liburuko Ana Malagon idazlearen bisita jasoko dute.

Manuel Lekuona kultur etxea, 18:30ean.

ASTEAZKENA 19

LASARTE-ORIA Ipuin kontaketa

HH3-HH4ko haurrei zuzendutako ipuin kontaketa berezia izango da. Ipuina olerki, abesti eta eskulanez bitartez landuko da. Ttakuneko bulegoan, aisia@ttakun.eus edo 695785392 telefonoan izena eman behar da. Villa Mirentxu, 17:45ean.

LASARTE-ORIA Tailerra

Haur eta gurasoei zuzendutako talo tailerra. Amaraun Kluba eta Solaskide programak sustatua. Ttakunenea, 17:00etan eta 19:30ean.

LASARTE-ORIA Kontzertua

Udal musika eskolako ikasle eta irakasleek gabonetako doinuez beteko dute aretoa. Manuel Lekuona kultur etxea, 19:00etan.

OSTEGUNA 20

LASARTE-ORIA Kontzertua

DJ Chill-Housek garai ezberdinetako Chillout eta House musika doinu arrakastatsua eskainiko ditu. Leku guztietan kultura ekimeneko ekintza. Juan XXIII plaza, 19:00etan.

ZINEMA

LASARTE-ORIA

MANUEL LEKUONA

Cold War
Ostirala: 22:00.

Condorito
Igandea: 17:00.

Giri
Igandea: 19:30.

GAZTELEKUA

El paquete
Ostirala: 18:00.

USURBIL

URBIL

Miamor perdido

Ostirala: 15:50,
18:05, 20:20,
22:35, 00:50.

Larunbata: 15:50,
18:05, 20:20,
22:35, 00:50.

Igandea: 16:15,
19:00, 21:45.

Robín Hood
Ostirala: 16:00,

Igandea:
15:50, 18:05,
20:20, 22:35.

Ralph Rompe Internet
Ostirala:
17:00, 18:00,
19:30, 20:30.

Larunbata:
17:00, 18:00,
19:30, 20:30.

Igandea:
17:00, 18:00,
19:30, 20:30.

Mortal Engines

Ostirala:
16:15, 19:00,
21:45, 00:30.

Larunbata:
16:15, 19:00,
21:45, 00:30.

Igandea: 16:15,
19:00, 21:45.

Robin Hood
Ostirala: 16:00,

22:25, 00:55.
Larunbata: 16:00,
22:25, 00:55.

Igandea:
16:00, 22:25

Superlópez
Ostirala: 15:45,
18:05, 20:25,
22:45, 01:05.

Larunbata: 15:45,
18:05, 20:25,
22:45, 01:05.

Igandea:
15:45, 18:05,
20:25, 22:45.

Animales fantásticos: Los Crímenes de Grindelwald
Ostirala:
16:20, 19:10,
22:00, 23:00.

Larunbata:
16:20, 19:10,
22:00, 23:00.

Igandea: 16:20,
19:10, 22:00.

Cadáver
Ostirala:
20:25, 00:45.

Larunbata: 00:45.

Viudas
Ostirala:
22:00, 00:40.

Larunbata:
22:00, 00:40.

Igandea: 22:00.



LABURPENA

Cold War (JBGA)

Zuzendari: Pawel Pawlikowski. **Gidoilariak:** Pawel Pawlikowski eta Janusz Glowacki. **Herr:** Polonia (2018). **Aktoreak:** Joanna Kulig, Tomasz Kot, Agata Kulesza, Borys Szyc, Cédric Kahn, Jeanne Balibar, Adam Woronowicz, Adam Ferency, Adam Szyszkowski. **Iraupena:** 88 minutu.

Burdinezko Harresiaz besteko amodioa

Pawel Pawlikowski maitasun istorio batean oinarritutako filma aurkeztu du: *Cold War*. Filma zuri beltzean dago grabatua eta film noirren estetika du. Musikalaren eragina ere nabari da.

50eko hamarkadan, Guda hotzeko urteetan dago kokatua eta garaiko Polonia, Berlin, Jugoslavia eta Paris aurkeztu ditu. Musika zuzendari bati bere herrialdeko musika zabaltzera emateko talde bat egiteko eskatzen diote. Hautagaietako batekin maitemintzen da. Jatorri eta izaera ezberdinetakoak dira eta horrek harremana zailtzen du. Hamarkada batez amodio istorioak bere gorabeherak izango

ditu, elkarrekin egoteko maitasun sutarik ezin elkar egotera. Egoera horrek legalki edo legez kanpo Burdinezko Harresiko alde batetik bestera eramango ditu protagonistak, eremu komunistatik jazza eta rock&rollaren lehen doinuek entzuten diren Parisera.

Filmak hainbat sari eskuratu ditu nazioarteko zinemaldietan. Pawel Pawlikowski Canneseko Zinemaldian zuzendari onenaren saria eskuratu zuen, esate baterako. Oscar Sarietarako Ingeleseko besteko film onenaren sarirako hautatu du Poloniak.

Filma jatorrizko hizkuntzan eskainiko da gaztelaniazko azpizidatzizkiekin.

Zorionak

LASARTE-ORIAKO
AHOBIZI ETA BELARRIPREST
GUZTIEI

Elkarrekin saiatu gara
gure eguneroko inertzia linguistikoak astintzen,
eta **modu kontzientean** gainera

*Gogoratu,
hau entrenamendua izan dela,
elkarlanean egon dela
Euskaraldiaren lorpenen sekretua,
eta Euskaraldiko egunik garrantzitsuenak
12.a dela*



IZAN PUNTU *gaur eta bihar ere bai*